



Dolmenen ibilbidea La Ruta de los Dólmenes

DOLMENEN IBILBIDEKO ALT XORRAK GERTUTIK IKUSTEKO AUKERA

● Zertan datza?

Aranzadi Zientzia Elkartek urtetan zehar Muskitzu-Irukurutzeta-Agerreburu mendilerroan induskatutako megalitoetan topatutako materialekin, erakusketa ibiltari bat prestatu du Elgoibar, Soraluze eta Bergaran ikusgai egongo dena. Debegesak, bertako ikastetxeei bisita gidatuak egiteko aukera eskaini nahi dizue, doan.

NOIZ?

Erakusketa SORALUZEN apirilaren 27etik maiatzaren 9ra ikusgai egongo da Erabilera anitzeko aretoan. (Baltegieta 2)

NORI ZUZENDUTA?

Bisitak bereziki LHko 6. mailako ikasleei zuzenduta egongo dira, gehienez ordubeteko iraupena izango dute. Txandak ikasgelako emango dira (25 ikasle gehienez?).

NOLA?

Izen ematea lotura honen bidez egin dezakezue:
<https://forms.gle/KtywTUgn31GBdc2Y9>

Edo tfno. honetara deituaz. **943 555 431**
690 270 261



ZER IKUSIKO DUGU BERTAN?

Dolmenen ibilbidean topatutako materialak bitrintan erakusgai egongo dira, panel eta bideo laguntzarekin. Horrez gain hezitzaile batek bisita horretan modu partehartzailea sustatzeko ariketatxoak proposatuko dizkie ikasleei eta bertatik bertara gunea ezagutzeko grina pizteko baliabide izango ditu bertan ikusiko dituzten materialak.

Galdera- erantzunen bidez, imajinazioa eta beraien bizitzarekin paralelismoak sortuz, historiaurreko garai desberdinetako biztanleen bizi modua ezagutzeko aukera izango dute: erritu desberdinak, elikadura, teknologia...

EZ GALDU AUKERA ETA ERRESERBATU EGUNA ETA ORDUA !!